

Ondoan hezitzaile bat nahi?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Ez, ezta? Izan ere, irudikatzen duzue zer izan behar den beti norbait ondoan edukitzea, egin ahal duzunaren –eta ez dezakezunaren– esparrua mugatuz, gauzak nola egin behar dituzun –eta nola ez– esanez, dena beti hobeki egin dezazun tematuz, egin beharrekoak etengabe adieraziz, denbora gal ez dezazun saiatzzen, nola jokatu behar den –eta nola ez– seinalatuz, zure lana beti epaituz –goraipamenez edo gaitzespenez–, edota zure bizitza goitik behera antolatuz? Denok ezagutzen dugu sentsazio hori, eta ongi dakigu ez dugula horrelakorik nahi izaten, itogarria zaigula, ez dela atsegina.

Agian zure hobe beharrez ariko da, ez dugu zalantza egiten. Eta zaila bada ere, jakin ere egingo du, beharbada, zer behar duzun, zuretzat onena zer den, edo nola iritsi zintezkeen zeure bertsiorik onena lortzera; baina hori horrela izateak edo horrela dela jakiteak ez du sentsazioa arintzen. Arazoa ez dagoelako bere asmoen borondatean, edo bere proposamenen zentzutasunean, baizik eta geurea baino behar ez lukeen askatasun eta erabakimenaren eremu sakratura sartu izanaren keinuan.

Nondik jo(an), zer (ez) egin, nola jokatu, edo nola bizi behar duzun etengabe esaka ari zaizun norbaiten asmoa beti

da zu bideratzea, eta asmo horretan beti sumatu daiteke zaren horren gutxiespena: hainbeste aldatu nahi badute, zaren bezalakoa onargarri (eta maitagarri) ez dela sentitzen baitu egoera horretan egon den edozeinek. Eta horrek mina sortzen du, noski.

Ondoan hezitzaile bat edukita bizitzea kosta egiten dela begi-bistakoa baldin bada, nolatan onartu eta instituzionalizatu dugu figura hori haur eta gaztetxoentzat? Zergatik onartzen dugu beraientzat geuretzat nahi ez dugun hori? Zer dute bada ezberdin, haurrek, hori nahi edo behar izateko? Zergatik naturalizatu dugu haurrek bizitzeko eta ikasteko hezitzaileak behar dituztelako ideia? Zer sentituko zenukete zuek, figura hori zuengan propio pentsatuz sortua izan dela jakingo bazenute? Ez ote zenukete sentituko asko dagoela zuen izateko-egiteko-jokatzeko moduan aldatu beharrekoa, hainbeste, non hezitzaile bat jarri behar izan baitzueten?

Garapenaren garaia izatea, gauza gehien ikasten diren aroa izatea, edo ia gauza guztien lehen aldia izatea ez da harremanaren nolakotasuna aldatu behar izateko arrazoi. Txikiak dira, eta asko eta asko dute garatzeko, ikasteko eta bizitzeko, baina, beren txikian, modu berean

nahi dute inguruarekin eta ingurukoekin erlazionatu. Onartuak sentituta, beren askatasun funtsezkoaren jabe direla, beren erabaki on eta txarren ondorioen arabera ikasiz, adinean gora egin ahala gero eta handiagoa den arduraz.

Haiek ere inguratu nahi dute hezi nahi ez dituztela frogatu duten baina bidean laguntzen dietela dakiten horiez, haurrek ere geuk bezala, hezitzaileak baino bidelagunak baitituzte nahiago. Zeintzuekin interakzioa edukiko duten, harreman eta atxikimenduak sortuko dituzten, eta harremanaren efektu hutsez, modu berriak ikasi, errealitate berriak ezagutu, bizi, hazi, eta garatuko dituzten, modu naturalean.

Txikiak dira, eta geure behar handiagoa dute. Baina horretan baizik ez luke haurren adinak beraiekiko harremana baldintzatu behar: autonomia-maila txikiagoa edukita, gehiago behar dutela gure presentzia, gure laguntza. Jar dezagun zaintza heziketa esaten genuen tokian, baina horraino, kito.

Eta gainerakoan, erraza da: ez gaitzezen haurrekin erlazionatu guretzat onargarri irudituko ez litzaigukeen moduan. Eta ez galdetu pertsonei adina, bidelagun edo hezitzaile izan behar gaitzaizkion jakiteko. ●